

*Jon Markaide, zientzilaria arrasatearra*

# ARRASATE PRESS

1993ko irailak 10

203. zenb.

**Maltzaga-Urbinako  
eztabaidaguneak**

Ferixalekua  
**Hezkuntza sailarekin  
arazoak**

**K2**

**Hurrengoan  
bai!**



*Errikita* S.L.

**SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA**

# **Kostatzen zaizuna jakin dezazun**

Likidazio osoa

Prezio garbiak

Irailaren 7tik 24ra

Lekuz aldatzen dugu



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



GATZAGAN



Liburu eta paperdenda  
Bidaiarako eta  
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 14 06



Aldizkari honek  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta  
Turismo Sailaren laguntza jaso du

# Berriro ere lanean

**B**ederatzi urte Arrasatera etorri nitzela eta harridura askoren artean ez zen txikiena izan lanerako aurkitu nuen prestasuna eta zintotasuna. Ez helduengan bakarrik, baita haurrengan ere. **Lanaren kultura** eta sena bizi bizi-rik zegoen.

Gaur egun berri, ugaritasunaren eta erraztasunaren seme-alabak, beste mami batekin eginak ote dauden kezkatu naiz. Lanaren kulturaren orde oporraren, **atsedenaren kultura** bizi dute edo bizi dugu.

Ongi. Gizakia zorionerra deitua dago, zorionerako egina da; baina ez dezagun ahaztu lana bera ere geure geurea dela, eta gaurko ugaritasunak eta baliabideak besteen lanaren ondorio.

Lanak "itota" bizi izan dira gure arbasoak. Lanaren menpetasuna arintzea eta giza arnas-bideak lortzea txalogarria eta Jainkoaren nahia da. Aspaldidanik, mirabetasun gorrienean bizi zela gizona, Jainkoak defenda zuen gizartearen jai-egiritua eta lan-oporra astian behin bada ere. Garai haiek tan abantaila sozial ikaragarria izan zen Jainkoaren eskakizuna:

*"Izan ezazu gogoan larunbat-eguna, santu egin dezazun. Sei egunez ariko*

*zara lanean, eta orduan egingo dituzu zure lan guztiak. Zazpigarren eguna, atsedeneguna da, Jaunari, zure Jainkoari eskainia. Egun horretan ez duzu bat ere lanik egingo, ez zuk, ez zure semeak, ez zure alabak, ez zure morroiak, ez zure neskameak, ez zure abereak, ez zure irietan bizi den arrotzak."* (Ex. 20,8-10)

Baina gaur egungo gazte eta heldu askoren neurri gabeko jai-beharra eta atsedene irrika biziak, itogarri eta ezeztatzaila bihurtzen ari zaizkielakoan nago. Oporrak amaitu eta... opor-sindromea, lan-sindromea. hau da, hau, komedia! Bizitza arrunta bera ere sindrome bihurtu behar zaigu laster! Beno, hasiak gara?

Eta ez da harritzekoa; norabideak galtzean... Ingenio-roaren antolamendutik kanpo ez du ongi funtzionatzen makinak, ez eta Jainkoaren egituratetik at gizakiak.

Lagun badiezazuke, hara Jainko hitzaren jakinduria: *"Eta egin zuen Jainkoak gizona bere irudiko: Jainkoaren irudiko egin zuen; gizaseme eta emakume egin zituen. Bedeinkatu zituen Jainkoak, eta honela esan zien: 'Hazi zaitezte eta ugaritu; bete ezazue lurra, eta menperatu. Izan zaitezte itsasoko arrainen, lurreko hegaztien, eta lurrean dabil-tzan bizidun guztien nagusi'".* (Gen. 1,17-28)

Hara non gizakia, Jainkoaren irudiko: ez dizu honek ezer esaten? lana, berri, gizakiaren osagarri: eta honek? Zuk ikusi. Baina ni, **nerre buruaren osasunerako**, Jaunaren asmoak ikasten eta betetzen saiatuko naiz, eta biharko utzi gabe, hautsi dezadan sindromea; gogoz eta ilusioz lanean hastera noa.

**SAGARRAGA (JOSE MARI ASTIGARRAGA)**



## • ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 - ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40


**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Aguirre. **Publizitateak:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioak:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioak:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Inaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alfonso, Liher Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Danel Goikolea, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS**  
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: K2





# ZENBAKI

Aholkularitza

**Kontabilitatea**  
**Fiskalitatea**  
**Lana**  
**Juridikoa**  
**Finantzaketa**  
**Aseguruak**

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15  
ARRASATE  
Tfnoa: 77 12 39

13tik- 30ra itxita  
oporragatik



- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Paregabeko karta

## RUTH GATZAGA

Olarre kantoia. Tfnoa: 79 59 57  
ARRASATE

# Memesa

79 42 22

# HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiral  
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

## Botikak eta zaborra

**E**guzki erakunde ekolo-  
gistikako kide garenok,  
gure gizartean sortu den hi-  
riko hondar solidoen bolu-  
menaren hazkortasunaren  
arazoa, bilketa selektibo eta  
birziklapenaren bidez zehaz-  
ki abordatu behar direla ziur  
daude. Azken urte hauetan  
proposamen ezberdinak aur-  
keztu ditugu, hauen barne  
paper, beira eta pilen ingu-  
rukoak daudelarik.

Bide honetan eta ara-  
zoaren orokortasuna alde  
batera baztertu gabe, pauso  
bat gehiago eman nahi dugu  
eta etxeko farmakoak bes-  
teen artean berezi daitezela  
proposatzen dugu, hau da,  
etxeko zabor-poltsetatik  
hondakindegira ez daitezela  
hel.

Jakina da, hiriko hondar  
solidoen artean botikek pisu  
eta bolumenean eragina mi-  
nimoa dela. Ikerketa batzuek  
%0,5ean finkatu dute. Bai-  
na, adibidez, pilekin gerta-  
tze den bezala, hauen eragi-  
na hiriko hondar solido lixi-  
batatuetako toxizitate mai-  
letan duten eragina ez da ba-  
tere mespretxagarria.

Beste adibide bat, nega-  
tiboki baita: hiriko hondar  
solidoetatik lortutako "far-  
makoen compost" deritzo-  
tenen presentzia faktore era-  
bakiarra izan daiteke, mate-  
riale honek nekazaritzan era-  
biltzeko garantiak bil ez dit-  
zan.

Zenbat farmakok buka-  
tzen dute hondakindegietan,

eta beraz, ingurugiroan? Ez  
da honi buruzko ikerketa  
exhaustiborik, baina ontzat  
ematen da partikularrek far-  
mazietatik hartutako botike-  
tatik %60a bakarrik erabil-  
tzen dutela, gainerako %40a  
zaborretara botatzen da.  
Etxeetan ohizkoa izaten da  
balio ez duten, kadukatuta  
edo eta jadanik zein funtzio  
bete behar duten ez dakigu-  
lako, pomada, pirula edo ja-  
rabeak botatzea. Jakina da  
hauetariko produktu asko  
etxean edukitzea arriskutsua  
izan daitekeela, batez ere  
etxeko txikienentzat.

Egoera honen aurrean  
aurkitzen garenez gero, ins-  
tituzioek etxeetan botatzen  
diren farmakoen bilketa se-  
lektibo bati buruzko kanpai-  
na bultzatzea proposatzen  
dugu Eguzkiko partaideok.

Hasiera batean, bide on  
eta efikazena farmazietan  
ontzi batzuk jartzea dela uste  
dugu hiritarrek heuren boti-  
kak bota ahal izateko. Sis-  
tema hau teknikoki sinplea,  
hiritarrek ondo uler dezake-  
tena eta merkea da, gainera  
beste abantaila bat eduki de-  
zake, farmazietikoen inpli-  
kazioaren menpe: farma-  
koen toxizitate mailaren ara-  
bera, farmazietikoak berak  
lehen selektio bat egin de-  
zake, hau egiteko gai dire-  
nez gero.

Kasu guztietan, hor dago  
gure oinarrizko proposa-  
mena, etxeetan botatzen di-  
ren farmakoak farmazietan

jasotzea bertan selekziona-  
tuak izateko. Instituzio  
inplikatuari, proposamen hau  
aztertu eta beharrezko me-  
dioak jartzea eskatzen diegu  
(ez dira hainbeste eta), be-  
raurrera eramatea posible  
izan dadin.

**EGUZKI**

- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aukiak



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Erdiko kale. 79 19 37



Ferreries. 79 87 62




# Gustora etortzen zara azoka plazara?



**Bitori Zenitagoia**  
**Etxekoandrea (54 urte)**

Ni plazara beti, geu be basarritarrak gara eta. Danetik egoten da, baina normalian jenero ona egoten da.




**Guillermo Iglesias**  
**Jubilatua (63 urte)**

Ostiralero jaisten naiz azokara, fruta ona egoten da, eta gustorago erosten da hemen.




**Ainara Osinaga**  
**Ikaslea (13 urte)**

Bai, sarritan etortzen naiz, jende asko edo gutxi, ondo egoten da. Ni nere amarekin etortzen naiz erosten.



**Marino Gonzalez**  
**Laboraleko langilea (42 urte)**

Bai, emaztearekin etortzen naiz normalean, interesgarria izaten da, barietatea egoten da eta betidanik gustatu izan zait.




**Dionisio Agirre**  
**Jubilatzekotan (60 urte)**

Gustetan jat, egunero zerbait ikusten da barrixe. Hamen gauzie hobatxuaue da, egunekue.



**Juli Berezibar**  
**Jubilatua (76 urte)**

Asko gustetan jat niri, beti etorten naz, bezero fiñe naz ni, beti-betikue.



**Julian Azpitarte**  
**Jubilatua (76 urte)**

Gustora, bai. Jenerue ona da, baiñe diru asko bihar dala, bestela ezebez. Basarritarre-na hobie izaten da betik.



**Adoracion Fdez. de Ocaña**  
**Fagorreko langilea (50 urte)**

Bai, ahal dudanean, lana daukat eta. Baina orain oporetan nago, eta gustatzen zait, frutatatik eta.

**F A N C Y**

Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

<b>Eritetxeak</b>	
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11
<b>Gurutze gorria</b>	
Bergara .....	76 55 76
<b>DYA</b>	
Antzuola .....	76 62 91
<b>Anbulatorioak</b>	
Arrasate (Larrialdiak) .....	79 13 57
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
	77 07 21
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	71 44 52
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramio .....	(945) 45 51 16
<b>Anbulantziak</b>	
Gipuzkoako ambulanziaz .....	45 87 44
<b>Udaltzaingoa</b>	
Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22
<b>Ertzaintza</b>	
Arrasate .....	79 71 99
<b>Suhiltzaileak</b>	
Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00
<b>Matxurak</b>	
Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78
<b>Garraioak</b>	
Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19
<b>Hirugarren adinekoentzako zentruak</b>	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57
<b>Kontsumitzailearentzako informazioa</b>	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55
<b>Montterongo liburutegia</b>	
Montteron .....	77 01 05

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

<b>Ostirala 10</b>	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.	
<b>Larunbata 11</b>	
Egunez: Corcuera. Musakola.	
Gauetz: Puy. Barrenkale.	
<b>Igandea 12</b>	
Egunez: Irizar. Erguin.	
Gauetz: Puy. Barrenkale.	
<b>Astelehena 13</b>	
Egunez: Ruiz. Maala.	
Gauetz: Guallar. San Antonio.	
<b>Astearte 14</b>	
Egunez: Morales. San Andres.	
Gauetz: Mozos, Pedro Deunaren.	
<b>Asteazkena 15</b>	
Egunez: Corcuera. Musakola.	
Gauetz: Puy. Barrenkale.	
<b>Osteguna 16</b>	
Egunez: Corcuera. Musakola.	
Gauetz: Corcuera. Musakola.	

**10 OSTIRALA**

**ZINEA.**

«Bambi» 7etan. «Sin Perdón» 10etan.

**PINTURA ERAKUSKETA**

«Txifi» pintore arrasatearraren eskutik.

**JAIK**

Aretxabaletako Arientza auzoan, Andramari jaiak.

Uribarri-Erguin jaien hasiera. Gaueko 11etan, dantzaldia

GAUBELA taldearen eskutik.

Heriotza eta Urtz taldeak, gaueko 11,30etan kontzertua Gatzagan. Sarrera dohainik.

**GAZTEEN EUSKAL AKANPADA**

Deba Garaiko hainbat gazte Degurixaruntz Debagunek antolatutako akanpadan parte hartzeko.

**URIBARRI-ERGUINEN JAIK.**

Ostiralean, arratsaldeko 6etan emango zaie hasiera jai hauei. Diana eta etxaleruen jaurtiketa egin eta gero, haur jolasak egingo dira. Arratsaldeko 7etan, meza izango da. Ondoren, txikiteo herrikoia eta gauean dantzaldia GAUBELA taldearekin. Larunbatean goizeko 11etan, lasterketa eta luzera jauzi probak egingo dira Iturripeko pistetan. Arratsaldeko 5etan, haurrentzako txokolatada egongo da, eta hau bukatzean buruhandien kalejira. Gauean ere, GAUBELA taldeak dantzadia eskeiniko du. Igande goizerako Herri Kirolak antolatuak daude, eta bertan izango dira bertsolariak ere. Arratsaldeko 7etan TXALAPARTA taldearen dantzaldia hasiko da, gaueko 9,30ak arte.

**11 LARUNBATA**

**ZINEA**

«Bambi» 5etan. «Stalingrado» 7,30 eta 10,00etan.

**GORLAKO VII. AUTO IGOERA**

Bergarako Racing Elkarteak antolatuta. Goizeko 9etatik 12etara.

**EXTREMADURA EGUNA**

«Corazón De Encina» kultur elkarteak antolatuta. Ospakizunak Landako urtegi.

**URIBARRI-ERGUINEKO JAIK**

Arratsaldeko 4etan mus txapelketa.

**GATZAGAKO JAIK**

Arratsaldeko 6etan Fandango eta Arin-Arin txapelketa.

**ANTZERKIA.**

Nor Nori Nork, Hau Saltsa» obra taularatuko du, Antxieta Antzerki taldeak. Elorrioko Arriola kultur aretoan.

**KONTZERTUA**

«Zorrostiaga» eta «Rohan» talde gasteiztarren kontzertua. Gaueko 9,00etan, Arrasateko Gatzetxean.



**ALDERDI EGUNA.**

Irailaren 24, 25 eta 26an burutuko den Alderdi Eguneko akanpadara joan nahi baduzu, izena eman Batzokian irailaren 20a baino lehen.

**12 IGANDEA**

**ZINEA**

«Bambi» 5etan. «Stalingrado» 7,30 eta 10,00etan.

**PEREGRINAZIOA ARANTZAZURA**

Arrasateko autobusak irtengo dira goizeko 8,30tan.

**GORLAKO VII. AUTO IGOERA**

Goizeko 8,30etan hasita.

**KURTZEBARRI EGUNA**

11etan meza santua eta ostean salda eskeiniko zaie bertara joandakoei.

**HERRI KIROLAK**

Uribarri-Erguniko Arimazuriko plazan.

**BERTSOLARIK**

Peñagarikano, Enbeita eta Solozabal bertsoan Gatzagan. Arratsaldeko 7etan.

**MANIFESTALDIETARAKO AUTOBUSAK.**

Arrasateko EAJk autobusa antolatu du, Donostian egingo den manifestaldira joan nahi dutenentzat. Autobusa arratsaldeko 4,30etan aterako da. Igandean Donostian egingo den manifestaldirako Arrasateko Gestorek antolatu dute autobusa. Arbolapetatik aterako da goizeko 11,30etan



**13** ASTELEHENA**ZINEA**

«Stalingrado» 7 eta 9,30etan

**ODOL EMATEA**

Arrasateko Anbulatorioan, arratsaldeko 4,30etatik 8retara.

**TXERTAKETA KANPAINA**

Gripearen aurkako txertoa jarri hartu nahi dutenentzat.

**14** ASTEARTEA**ZINEA**

«Stalingrado» 7 eta 9,30etan

**15** ASTEAZKENA**ODOL EMATEA**

Arratsaldeko 4,30etatik, 8retara.

**AED-ko BAZKIDEEN BILERA**

AED-ren 10. urteurrena antolatzeko. Monterronen, arratsaldeko 7etan.

**SAN MARTIN AGIRRE JAIK**

Bergaran, San Martin Agirre plazan GAUBELA orkestraren dantzaldia.

**16** OSTEKUNA**SAN MARTIN AGIRRE JAIK**


Eguerdiko 12,30etan Udal Musika Bandaren Kontzertua, San Martin Agirre plazan.

**INSTITUTUKO MATRIKULA.**

93-94 ikasturtean, IEE, BBB edo UBIko ikasketak institutuan egin behar dutenek, matrikula irailaren 7tik 13ra egin behar izango dute.

**LEHIAKETAK**

Banco Central Hispanok Euskal Herrian duen Herrialde Zuzendaritzak, «Imajina Ezazu Euskadi» lemapean, lehiaketa desberdinak antolatu ditu. Interesatuak, margolaritza, argazkigintza, poesia nahiz ipuin sailetan parte har dezakete. Poesia zein ipuin ataletan, gainera, bi modalitate daude, batetik euskaraz egindako lanak eta bestetik gaztelerez egindakoak. Lanak aurkezteko epea, urriaren 30ean amaituko da, eta Banco Central Hispanok Euskal Herrian duen edozein bulegotan entregatu ahal izango dira.

**KIROLDEGIKO IKASTAROAK.**

Ikastaro desberdinetan parte hartzeko aukera dago: igeriketa, aerobika, gimnasia erritmikoa, mantenimendurako gimnasia.

**EUSKARAZ MAITE ZAITUT**

Arrasateko ERDU-AEK euskaltegian matrikula egiteko epea zabalik dago eta hilaren 24an bukatuko da. Klaseak, berriz, 27an hasiko dira. Urtero bezela eskaintza zabala da eta gainera taldeak sortzen diren lantegietan ere euskalduntze zein alfabetatze ikastaroak emango dituzte. Matrikula egin nahi duenak, Garibai etorbidean egin dezake eta informazioa nahi baduzu, dei egin 799583 telefonora.





“Astebetean zehar lau inkestatzaileek Arrasateko anbulategiko profesionalei buruzko galdeketa egin zieten Arrasateko biztanleei eta erizaingoaren gaitasun profesionala da gutxien baloratzen dutena. Niri erantzun horiek oso interesagarriak iruditzen zaizkit, izan ere hemendik aurrera neurri zuzentzaileak jarri ahal izango dira martxan, sanitate-zerbitzu honen erabiltzailea gustora uzteko.

(...) Erizainok dagoeneko ez gaituzte medikuaren idazkari gisa ikusten, kontsulta batekin identifikatzen gaituzte. Gaisoen gehiengoak badaki gure izena, zentruko telefono zenbakiak eta badakite edozein zalantzari buruzko kontsulta egin dezaketela ere, horretarako gaude eta.

Erizaintza tekniken aplikazioarekin nahasten da askotan, eta ez da hori bakarrik. Erizaintza osasun-heziketa da, eta hortik abiatuta, esparru zabal bat zabaltzen zaigu, erabiltzailea prebentzioari buruz kontzietziatzea helburu harturik”.

**Edurne Marañon** uztaila-iraila

*Huntza*

“Mina ez da sekula bakardadetik etorzen. Mina, eromena bezala, gizakiaren asmakizuna da. (...) Heriotzaren konpainia maitakorra bakarrik espero dut, poesiarena, emakumeak edo txorboak ere garrantzitsuak izan arren. Baina maitemintzea hutsegitea dela uste dut, eta maitasuna bata bestearenganako aluzinazioa dela, amets eskizofrenikoa. (...) Burusoil geratzeak izutu egiten nau, baina zahartzarora gaztarora baino amets ederragoa da, idazketatik hurbilagoa. (...) Nik sinesten dut Jainkoagan, baina berak ez du sinisten bere buruarengan, Jainkoaren ideia judeokristauaz ari naiz, Jainkoa hilik aurkezten diguna. Argi dago Jainkoak ez duela elizarengan sinisten, ez eta zapalkuntzarako elizaz jabetzen diren apaizengan ere. Herexian sinisten du Jainkoak”.

**Leopoldo Maria Panero** 93-9-5

**Igandegin**

## Zein da Eskoriatzan dauden bosniar errefuxatuen egoera?

«**C**EAR» (Errefuxatuen Laguntzarako Batzorde Espainiarra) erakundearen ustez estatuan dauden bosniar errefuxatuak ezin dira betirako egoera honetan egon. Horregatik, Mercedes Milaren telebista saioan, errefuxatuentzat lana topatzen ari zirela esan zuten. Deialdia egin ondoren hainbat lanpostutarako eskaintzak jaso ziren eta geuk ere eskuartearen ditugu eskaintza hauek. Lanak behin-behinekoak dira noski, nekazari edo lorazain bezelako postuetarako eta gainera, Euskal-Herriatik kanpora joan beharko dute, Toledo, Logroño eta halako tokietara. Kamioi gidari gisa lan egiteko eskaintzak ere badaude eta Eskoriatzan dagoen errefuxatu batek kamioiak gidatzeko baimena duenez, seguruenik lanpostu hau zelakoa den probatzera joango da. Hasieran bera bakarrik eta gustatuko balitzaio familia joango litzateke ondoren. Hala ere, eta abendurako lanik aurkitu ez dutenek, hemen jarraituko dute.

Argi gera bedi, jatorriko euren herrietara bueltatu ezin direlako geratzen direla hemen. Beste batzuk, berriz, senarra Bosnian dutenek, nahiago dute aldegitia.

Bestalde, egunetik egunera, errefuxiatuak itxaropena galduaz doaz. Etorri zirenean, sei hilabete igaro eta gero gerra amaitu egingo zela uste zuten; baina momentu honetan ez diote gerrari amaierarik ikusten. Ondorioz, gero eta tristeago daude, zer egingo duten ez dakitela.

Oraingoz hau da egoera. Zaila, baina aurrera egiteko modukoa, eta guk, ahal dugun heinean, laguntzen jarraituko dugu.



**Elena Vazquez**

«Deba Garaia Bosniakin»  
Batzordeko partaidea



# URONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa

Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

ARRASATE



## Transformados Metalicosen espedientea

Transformados Metalicos enpresan erregulazio espedientea planteatu zieten langileei pasa den astean. UCEM Korporazioa da Transformados Metalicos-en jabe, eta holding-en horren galeren ordaina ari dira jasaten enpresan. Duela hilabete batzuk Gasteizko Esmaltaciones San Ignacio enpresarekin fusioa egiteko aukera aurkeztu zieten langileei, baina hori deskartatuta dago orain, eta UCEMeko dokumentuetan azaltzen denez, sekzioen bat itxi egin beharko da aurten Transformados-en, edo lantegi osoa itxi, bestela.

## Bidegorriak

Fagorretik hasi eta Mugariraino dihoan *bidegorria* (txirindularientzako bidea)



## Batzokiari erasoak

EAJko Batzokiko tabernaren enkargatuaren furgonetari sua eman zioten joan den ostiraletik larunbaterako gauean. 1.30ak inguru ziren Jose Zarraoa enkargatuaren Seat Transita erre zutenean, kanpotik gasolinaz bustita autoa. Batzokiarekin erlazionatutako azken asteetako bigarren eraso da hau, abuztu amaieran, Batzokiko atean pintura ezarri eta sua eman eta gero. Arrasateko jeltzaleek agiri bat kaleratu dute erasoak salatuz, eta nahikoa dela azpimarratuz. Tabrenako enkargatuaren autoaren kasuan, gainera, EAJk nabarmentzen duenez, autoaren jabeak ez du inolako lotura politikorik alderdiarekin, langile soila besterik ez da Batzokian.

amaitua dago dagoeneko. Uribe auzotik Garagartzara bitartekoari, berriz, laster batean emango zaio amaiera. Gerora begira, Takolotik Aretxabaletako mugaraino luzatzeko asmoa dago eta ondoren Garagartzara dihoana Atxabalpe inguruetaraino ekartzea.

## Goikobaluren kontzertua

Donostiako Musika Hamabostaldian arrakasta bikaina lortu ondoren, Goikobalu abesbatzak Ratxmaminov-en "Bezperak" lanaren errepikalidia eskaini zuen larunbatean Zumarragako X. Musikaldiaren barnean. Abuztuan, Donostiako 54. musika hamabostaldia ireki zuen Goikobaluk kontzertu berarekin, Donostiako Orfeoia eta San Ignacio abesbatzarekin batera.



Arrasateko Udaleko Kultura Batzordeak

## Pintura Irakaslea

aukeratu nahi du Monterron Kultur-etxeko pintura eta marrazki ikastaroak emateko. Eskariak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen da.

Izenematea eta informazioa Udaletxeko Kultura Sailean.





EDURNE ERAUSKIN \*

## Klasera itzultzeko aholku dekalogoia

**Ikasle,** irakasle edo guraso bazara, 13 ondo hasteko dekalogoia:

Ikasle bazara:

1.— Pentsatu oporretan ikusi ez dituzun lagunak ikusiko dituzula berriro. Baietz, desietan zaudela! Gainera, ikasturteko aldapan jolas eta festaguneak ditugu. Animo!

2.— Liburuak, koadernoak eta boligrafoa eraman, mesedez. Lehenengo egunean behintzat, ez? Eta forratuta, eh!

3.— Irakasle berria baduzu, ze ondo! aukera paregabea pertsona berri bat ezagutzeko. Eta berria ez bada, ba... baita, bidea egina duzu!

Irakasle bazara:

4.— Aste bukaeran burua eta ahotsa lasai mantendu. Fresko, fresko izan behar dituzu astelehenerako. (Etxe-ko gauzak, ba, hum... aldamenekoak egin ditzala, zuk deskantsatu!).

5.— Igandean, loak har-

tu aurretik, hamar minutuko erlajazioa komeni zaizu. Konzentra zaitez, hustu burua ortzadarraren koloreak ikusi arte, inguruko energia positibo guztia xurgatu eta irribarrez ohera. Mugitzen ez bazara, irribarrez iretzartuko zara!

6.— Burutik pasatu ere ez eskatzea "Zelakoak izan diren nire oporrak" idazlana, ados? Bere orde, abixuak, ordutegia eta arauak esan ondoren, txiste pare bat prestatu aingeru aurpegi horiek alaitzeko.

Guraso bazara:

7.— "Buf, eskerrak hasten direla!" esaldia, mesedez, baju-bajuan esan, lau haizetara oihukatze-ko goak izan arren.

8.— Eta gero "aurten, bai, jarraipen estua egingo diot eta irakaslearekin behar beste egon ere bai" asmo sendoa zure buruari aginduko diozu.

9.— Gosari goxo-goxoa prestatu: laranja zukuari "gelan erne egoteko" tanta batzuk gehitu; esnetan, "ondo hasteko animoak" bota eta biskoteak gurinaz, mermeladaz eta "gauza berriak ikasteko gogoaz" untatu.

Ikasle, irakasle edo guraso ez bazara:

10.— Ez kexatu egun hauetan eskoletaz hainbeste entzuteagatik. Zu ere ikasle izan zinen! Badakit, bai. Ez zen berdina: koaderno urdina, karpeta marroia, mutikoek praka motzak, neskek gona eta galtzerdi luze haiek eta zapata edo bota "Gorilak", pelota berde hura ematen zutenekoak. Ez, ez zen berdina izaten, baina ziur zuk ere lehen egunean barruko artxoak sentitzen zenuela. Orain bezala!

\* SAN FRANTZISKO  
XABIER IKASTOLAKO  
ZUZENDARIA

## USTEAK USTE

### BETI OPORRETAN

**Beno, 93ko udako opor-  
rrak bukatu dira. Urte-  
rokoari jarraiki, batzuk  
urrutitxoago, beste  
batzuk gertutxoago, ia  
denek nonbaitera joanik  
ospatu dute oporraldia.  
Herria, urtero garai  
honetan bezala, ia hutsik  
geratu da: denda gutxi  
batzuk zabalik, tabernak  
beranduago irekitzen  
zirelarik, jatetxeren bat,  
zinemarik ez, eta hori  
bai, edozein lekutan eta  
edozein ordutan aparka-  
tzeko leku ugari.**

**Baina guzti hau pasatu  
da. Orain, berriz ere,  
egunerokotasunera itzulu  
gara; eguneroko ordutegi  
finkoa bete behar: ordu  
jakin bat lanera sartzeko,  
ordu bat lanetik irtete-  
ko... horrela asteen bost  
egun eta beste hamaika  
hilabetetan zehar. Pentsa-  
tuta bakarrik, bati baino  
gehiagorik dardara  
sartuko zaio, eta ez da  
gutxiagotarako.  
Baina dardara handi-  
agoa izango du, lanik gabe,  
lanera sartzeko eta  
lanetik irtetik ordutegirik  
ez duenak. Eta ez pentsa-  
tu hau oporren bukaera-  
rengatik inor kontsolatze-  
ko aipatzen dudanik,  
gizarte hau doan eran,  
oporrak dituzten eta ez  
dituztenen arteko dife-  
rentziak, hau da, geure  
arteko diferentziak, gero  
eta nabariagoak izango  
diren beldur naizelako  
baizik.**

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE

comercial  
san juan

Garibai, 12  
Tfnoa: 79 13 05

hikein


MARKO-  
JARTZEAK  
Zerkaosteta, 4  
Tfnoa: 79 13 84

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16





Donostiako enpresa bat arduratuko da informazio guneak antolatzeaz.

## IGP: Bailarako autopistaren inguruan eztabaida modu berria

Maltzaga-Urbina autopistaren beharra eta trazaketa eztabaidatuko duten Interbentzio Gune Partehartzaileetan (IGP, edo NIP erdaraz) ez da autopista horren trazaketa bakarrik eztabaidatuko. Hori baino lehenago, Deba Bailara gurutzatuko duen komunikabide horren premiarik badagoen erabakiko da, eta ondoren, egitekotan zer modu hartuko lukeen ikusiko da: ea autopidea, autopista edo zer izan behar den.

IGPak zer izango ziren azaltzeko bilera egon zen asteazkenean Arrasaten, IGPak antolatuko dituen LES-Gizarteaz soziologia enpresaren eskutik, 50en bat lagunuen aurrean. Gizarteaz-eko zuzendariak, Luxio Ugartek, jendearen gaitasun erabakitzailea eta partehartzea handitzeko bidetzat aurkeztu zituen IGPak. Hartuko diren erabakiak binkulanteak ez direla izango onartu zuen, baina horrek badu kontrapartida, Ugarteren ustez: "Ez da binkulantea baina hori erlatibo da, ez dakit alderdiren bat egongo den herriak esaten duena atzera botako duenik".

IGPak 25 pertsonako 14 lantalde izango

dira. Deba Bailaran eta Donostia eta Gasteiz ingurutako jendea izango da, guztira 350 lagun (Arrasaten 57), eta zozketaz hautatuko dituzte. Jende horrekin kontaktuak egin, eta urtarrietik aurrera, IGPak banaka hasiko dira biltzen, bakoitza aste batean, gastuak ordainduta.

Kideek proiektuari eta alternatiba posiblei buruzko informazio ahalik eta handiena izango dute. Horretarako, urrian zehar, buzoi publikoak eratuko dira herriz herri, eta nahi duenak bere alternatiba eta iritzi arrazoiak jar lezake. Urritik aurrera, hautatu egingo dira proposamenen artean batzuk (iritzi-emale guztiekin kontaktuan egonda), eta urtarrietik aurrera, alternatibagileek beren alternatibak aurkeztuko dizkiete IGPe-tako partehartzaileei, erabaki dezaten.

Prozesu konplikatu honek galdera asko sortu zuen Arrasateko bileran. Batetik, IGPen proportzionalitatea jarri zen zalantzan, informazio falta ere agerian geratu zen, eta jende arruntak buzoi publikoetan alternatiba elaboratuak aurkezteko dituen zailtasunak.

## Santa Barbarako taberna

Santa Barbara parkeko kiosko-taberna adjudikatze-ko eskaera epea zabalik dago irailaren 18a arte. Urtebeteko epeaz emango da adjudikazioa, baina bi urtera luzatu ahal izango da.

## Escatu-ri baimenik ez

San Andres auzoko Escatu edifizio irekitzeko oraingoz baimenik ez ematea erabaki du Udalak. Escatu enpresak 8 milioi PTAko abala, eta urbanizazio lanen ordainketa eman beharko dio udalari.

## Iturripeko kanaloiak

Iturripeko kiroldegian kanaloien konponketarako obrak egingo dira. Kanalo horiek aurtengo otsaileko elurtean apurtu egin ziren. Orain espedientea irekiko zaio Iturripeko arkitekto eta obra-jefeari, proiektuan edo eraikuntzan akatsik egon zen aztertzeko.

## Urenen araudia

Edateko uren hornikuntza arautuko duen udal araudi bat erredaktatuko du Udaleko zerbitzu sailak. Uren saretik erabilera «piratarik» edo antzekorik gerta ez dadin. Ur sarearen erabilerari buruzko arau zehatz eta osotua izango du laster Arrasatek.

Onduline



TXOMIN HERIZ

eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18  
ARRASATE




Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian,  
"Alkoholiko Anonimoak"  
lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 61 93 38





Alejandro Altunak gela probisionalak egin ditu Ikastolak ikasturte honetarako.

## Ferixalekuko obrak hasi dira azkenik, lege arazoan artean

Astehenean hasi ziren, bi hilabeteko atzerapenaz, Ferixalekuko ikastetxeko lanak, baina lanen jarraipena ez dago ziurtatuta, Hezkuntza Sailaren jarrera dela eta. Ferixalekuko ikastetxea San Frantzisko Xabier ikastolak irakaskuntza ertaina eskaini dezan egokituko da eta ikasturte osoan luzatuko dira obrak.

Eraikuntza Udalarena da, baina Jaurlaritzako Hezkuntza sailak *afektatuta* dauka, hau da, erabiltzeko baimen legala dauka. Obrak egiteko, desafektazioa eskatu zitzaion Hezkuntzari, eta baiezkoa espero zen, ikastetxean ez baita eskola publikorik egon 1991tik. Baina erantzuna ezetza izan da, eta

Fernando Buesa sailburuak sinatuta etorri da, esanez mapa eskolarra zehazteke dutenez, eraikuntzari zein erabilera eman erabakitzeko dutela oraindik. Erabaki horri aurre egiteko, errekurtsoa aurkeztuko du Udalak epaitegian.

Eraikuntzaren *afektazioa* zen etxetik ez joateko bertan bizi zen irakaslearen argudioa uztailen izandako eztabaidan. Azkenean, etxea desalojatu egin zioten irakasle horri.

Bestalde, obrek iraun bitartean, umeentzat ikasgela berriak egokitu ditu Ikastolak Alejandro Altunako pabilioi zaharretan. Guztira, zortzi gela prestatu dira han, 170 ikaslerentzat.

## Helduen heziketa

Helduen heziketa ikastetxeak matrikula epea zabalik du irailean. Zentro honetan, idazten eta irakurtzen ikasi, ikasketak eta ezaguera zabaldu eta eskola graduatua eskuratzen laguntzen dute. Bi ordu izango dira klaseak egunero, goizez, arratsaldez edo gauez. Izena emateko edo informazio gehiago izateko, egoitzatik pasa, Ferrerías kaleko 28an, goizez 10etatik 1etara era arratsaldez 4etatik 7etara.

## Euskaltegien matrikula

Arrasateko euskaltegiaren ere zabalik dago matrikula epea. Udal euskaltegiaren irailaren 22an hasiko dira ikastaroak, eta matrikula ordura arte egin daiteke, goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 3etatik 7etara. AEKko Erdi euskaltegiaren, aldiz, urriaren 4an hasiko dira klaseak, eta izen-emateak irailaren 30a arte izango dira, goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 5etatik 8etara.



IRAKASLE ESKOLA  
ESKORIATZA  
GIPUZKOA

**Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:**  
**1993 - 94 ikasturterako matrikulazio epea zabalik dagoela**

### ESPEZIALITATEAK

- Haur eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA  
IRAKASLE ESKOLA  
Tfnoa: 943/ 71 41 57



Parlance

# ZORIONAK !!

Gure ikasleen  
**% 99ak CAMBRIDGE azterketa gainditu du**

93-94 ikasturterako  
matrikula zabalik

Ferrerías, 11 Behea Tfnoa: 77 06 83 ARRASATE





# MANGO

Postas, 5 eta 5 bis GASTEIZ  
Tfnoa:(945) 23 04 48



## BETI SEGURU

- Etxerako arrisku-anitza
- Dendetarako arrisku-anitza
- Komunitateetara arrisku-anitza
- Industriarako arrisku-anitza
- Automobilak
- Gidatzeko baimena kentzea
- Bidaiako asistentzia
- Istripuak
- Bizitza
- Jubilazio EPSU
- Subsidioak, gaisotasuna, istripuak
- Osasuna




MIKEL LASA, S.A.  
aseguru artekaritza

Maalako Errabala, 33 Etxabea. Tfnoa: 79 69 00 / 79 69 43. Fax: 77 10 74 ARRASATE



Zuhaitz genealogikoetan arakatzeari gustatzen zaizuonontzat, hona hemen kasu bat. Bere arbasoen bila dabilen argentinar batek, **Rubén Daniel Uribesalgo** izeneko gizon batek, ezkuitz bat bidali digu. Lagun honek gutunean esaten digunez, bere berraitona arrasatearra zen. **Gaspar Uribesalgo** omen zuen izena. Beraz familiartekoekin jarri nahiko luke harremanetan. Kasua hor dago, nork nahi du detektibe lana egin? Era berean, Uribesalgo abizenaren jatorria zein den ezagutzen lagun diezaiokeen norbaitekin harremanetan jarri nahi luke.

Gatzaga herri txikia izan arren, bada bere aldizkaritxo ateratzeko gai. Joan zen aste-bukaeran, «Urlatik» izeneko aldizkariaren lehen aleak argia ikusi zuen Gatzagan. Txikia eta bizkor irakurtzekoa, baina nahikoa. Gure aldetik zorte ona izan eta ongi etorri herri aldizkarien mundutxo honetara.



**Uritsi dira aiak!**

**Atxabaltar hauek, Jose Mari Armentia eta Maite Maqueda, Dorletan ezkondu ziren uztailaren 7an. Zorionak guztioi!**



Arrasaten egiten den musika kanpora ateratzeko modukoa da. Horregatik **Zakarra** eta **Iskanbila** taldekoak Madriler

joan ziren uztailean. Bertan, Minuesako etxe okupatuan arrazakeriaren aurkako kontzertua eskeini zuten.



**Martin Etxebarria eta Amaia Cillaurren ekainaren 26an ezkondu ziren, eta Mallorcara joan ziren ezkon bidaian.**

## IZEN PROPIOAK

● **Edurne Marañon**, 35 urte, Arrasateko anbulatorioan iritziak jaso eta ikerketa bat egin du bertan eskeintzen diren zerbitzuei buruz. Edurne erizaina da herriko anbulatorioan eta atentzio primarioko erizainen buru ere bada.

● **Mikel Uribesalgo**, 28 urte, eta **Iñigo Gainzarain**, 25 urte, izan dira Arrasateko udaleko udaltzain postuetarako aukeratuak. Mikelek magisteritza ikasketak egin ditu, eta Iñigok maestria ikasketak.

● **Andoni Zubiaga**, 25 urte, izan da Amaia antzokiko arduradun izateko aukeratu. Andonik Irudi eta Soinu ikasketak egin ditu Andoainen.



Itxura denez, oportetan kanpora joaten diren arrasatearrak gogoratzen dira ARRASATE PRESS-**EZ**. Toki desberdinetatik, London, Noruega, Cadiz, Vatikanon, zein Donostiatik bertatik bidalitako postalak jaso ditugu. Guztiak atseginak, baina bat aukeratu behar, eta azkenean, Arrasateko

neska politenek arabieraz bidalitako postalari saria ematea erabaki dugu. Zeintzuk diren neska eder hauen izenak? Ba, **Iratxe, Susana, Ana, Konsu, Goizane, Jone eta Arantza**.

Orain, noski, euren artean zozkatu beharko dute saria.



**PAZI-OLA** S.A.

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2  
ARRASATE Tfnoa 79 29 94







*Eskolako hamabostaldia*

*Elisabeth*

*Araba Etorbidea, 18 ARRASATE*

*Kirol jantziak prezio onenean*

**ARRASATE**

**KIROLAK**



**Kontzezino kalea, 8  
Tfnoa: 79 46 12  
ARRASATE**



# K2: 8.100 metrotan, planto

Luis Fernandez

**Gailurrik ez zuten lortu, baina lortu izan balute bezala hartu zituzten etxera bueltan. Ez da porrota izan: alderantziz, K-2ko tontorra (munduko 2. garaiena) hurrengo urtean lortzeko gogoz itzuli dira Astore-Kutxa espedizio-koak. "Hurrengoan bai!", esanez bueltatu zaizkigu.**

Bost mendizale atxabal-tar (Jon Ander Loidi 'Billy', Fernando Uribesalgo, Joseba Urkia eta Felix eta Alberto Iñurrategi), bi nafar (Kontxi Zozia eta Kepa Mateo, batez ere sukaldari aritu zirenak) eta Pakistanen bildu zitzaizkien bi sherpa nepaldarrak (Ongchu Lama eta Gopal Bahdur) gogor saiatu ziren K2ea igotzen, baina munduko 2. gailur altuenak (8.616 metro) oraingoz ezetz erabaki du. Saialdiko gorabeherak komentatzeko, Felix eta Jon Ander aritu dira berrikeran ARRASATE PRESSEkin.

Espektatiba ugari sortu zituen Aretxabaletarren K2ko gaina lortzeko espedizioak: Iazko Iñurrategitarren arrakastak, Everestera oxigeno barik igo izanak, eta erronkaren zailtasunak (Txinako aldetik, iparraldeko malda eraso) atentzioa bildu zuten. Ondoren, zeramatzen telefonoa hondatzen kontak-tua galdu izanak eta Karakorum-eko tontorraren fama txar-rak, kezka bizitu zuten, logikoa den bezala. "Fama txarra, botatzen zaiona da", erantzuten digu Billyk. "Juxto guk



Aretxabaletan harrera bikaina egin zitzaizen herriko semeei.

● **"Fama txarra, botatzen zaiona da, telebistan ere K2 'la montaña asesina', eta etxean denak kaka eginda, normala, horrelako gauzak botatzen badituzte".**

**Jon Ander Loidi 'Billy'**

alde egin baino lehenago bota zuten 'K2: la montaña asesina' dokumentala telebistan, eta horiek gauzak ez dira onak inorentzat. Etxean denak kaka eginda, normala, horrelako gauzak botatzen badituzte".

K-2ren inguruan kontatzen direnak ez dira denak egiak izango, baina txantxetako ere ez da. Aurten, bost mendizale hil dira mendian, denak Pakistango aldetik, eta guztira 14 hildako gertatu dira Pakistango gailurretan. Aldiz, Astore-Kutxakoak ez dira arrisku larritan aurkitu beren espedizioan. "Arriskatu, ez gara arriskatu", kontatzen digu Felixek, "baina lehenengo kanpamenduaren inguruan segurtasunik ematen ez zuen zona bat geneukan, serak bat zen zintzilik, 80 bat metro alturako izotz pareta handi bat, zatika jausten zena poliki-

poliki, eta krak egiten zuen bakoitzean, orduan estu, baina bestela, bestela ez".

Espedizioak ez zuen ohizko bidea hartu K-2rako erasorako. Txinatik ekin zitoten, beste espedizio bakar bat zegoen tokitik. Ohizko bidea Abruzzoena da, Pakistandik, 1957an italiarrek lehenbiziko aldiz gailurra lortzean ireki zutena. Txinako iparraldeko bidea, japoniarrena da, 1982an irekitakoa. Harrezkero beste bi espedizioak lortu zuten hortik ("geu izan behar ginen laugarrenak, baina...") eta horregatik du zailtasun fama. "Baina uste baino errazagoa izan da", dio Felixek. "Gogorrena hurbilketa izan da, kanpamendu baseraino. Hortik aurrera eguraldiak ez du lagundu eta punto".

Zailtasunak, ordea, txinarrereko erlazioan izan dituz-





Felix Iñurrategi te. Oso garesti kobratzen dute dena, eta laguntasunik ez dute batera ematen, sinatutakoa ez bada. Inguruan beste espedizio bakar bat zegoen, nazioartekoa, errusiar eta mexikarrekin. Haiekin izan dute harremanik, baina bestela bakarrik egon dira. Bakardadeak, laguntza premiarik behar izatekotan, arrisku gehiago dakar... "baina inoiz ez zoaz horrelako gauzarik pentsatzen", erantzuten du Felixek. "Botikina daroazu, telefonoa, eta nahikoa da". Telefonoaren kontuan, ezaguna da hondatu egin zitzailela segituan, erregeai, generatzaile eta guzti 200 kilo pisatzen zituen Telefonikako traste bat omen zen.

Telefono barik, kontzienten ziren etxean arduratuago egongo zirena. "Baina han zauden bitartean, erreferentzia galdu egiten duzu hemen bizi daitekeen giroaz edo. Hemen dagoenak ez daki, baina zuk, han zaudela, zuk zeuk hartzen dituzu erabakiak eta badakizu non zabilzan". Alde horretatik, espedizioaren emaitza biribila izan dela uste dute. Arrisku uneak kenduta, ez dute osasun arazorik izan (berakoa denek pasatu arren), eta esperientzia eder eta aberasgarria izan da denentzat.

"Hain egun gutxitan aurrreratu genuena izugarria izan zen. Egunean 400-500 metro soka sartzen genituen eta ondo dago hori, terreno serioa zen eta ondo". Aukera zegoen artean, eguraldi oneko egunean, gora jo zuten, eta azken saialdian Iñurrategitarak



Alberto Iñurrategi 8.100 metroan geratu ziren, gerriraino elurra. Planto esan, eta behera. Hurrengo egunean, aukerarik ere ez zuten izan, eta gainerakoa desmontatzen pasatu zuten.

Everestekin gonbaratuz, "ez nuke esango gaitzagoa izan denik, diferentea bai", komentatzen digu Felixek. "Nik uste dut ia neurriira egingako punta bat dela, disfrutatzekoa, baina zegoen kondizioetan ezin izan dugu".

Eta neurriira eginga dagoenez, itzultzeko zirrarakin daude dagoeneko. Hurrengoan, baimen bat eskuratu duen batekin kontaktuan daude, eta bestela, beren kasa beste espedizio bat antolatuko dutela esaten dute. Hori bai, Pakistanetik izango da eraso. "Erabakita ez dago, baina ilusioa eta gogoa badago, eta datorren urtean izango da". Ea ba zortea duten, aurrean izan dutenaren parekoa behintzat: denak pozik etxeratzen.

● **"la neurriira egingako punta bat da, disfrutatzekoa, baina zegoen kondizioetan ezin izan dugu".**

**Felix Iñurrategi**


● **Hurrengoan ere K-2ra: "Erabakita ez dago, baina ilusioa eta gogoa badago, eta datorren urtean izango da".**



Jon Ander Loidi



Joseba Urkia



Fernando Uribealzo

## Mendiko egutegia

**Ekainak 2.** Pakistango Islamabad-etik Txinara bidea hartu zuten.

**Ekainak 8.** Gurpilak ahaztu eta gamelu gainera Txinan.

**Ekainak 14.** Game-lu-bidaiaren amaiera, kanpamendu basea ezarri zuten 4.600 metrora. Gailurrera 12 kilometro inguru falta dira horizontalean, 4 kilometro bertikalean.

**Ekainak 17.** Gopal Bahdur eta Ongchu Lama sherpek kanpamendua bedeinkatu zuten beren *puxia* zeremoniaren bitartez.

**Ekainak 18.** ABC kanpamendura (kanpamendu base aurreratua) irteera.

**Ekainak 19.** ABC kanpamendura iristearekin batera, irati-telefonoa hondatu egin zen: Euskal Herriarekin kontaktatzeko bide bakarra moztuta geratu zen.

**Ekainak 22.** ABC kanpamendua finkatuta. 4.900 metrora dago, baina kilometro askoko bidea da kanpamendu basetik.

**Ekainak 24.** San Juan egunez, mendira irte-zeko zirela, elurtea. Bi egunez elurra mara-mara.

**Ekainak 28.** 1. kanpamendura iritsi ziren, 5.500 metro.

**Ekainak 29.** 500 metro soka jarri zituzten 1. kanpamendutik gora.

**Uztailak 1.** Lehen kanpamendura lotara iritsi zen espedizioaren parte bat,



baina jaitsi egin behar izan zuten eguraldi txarragatik.

**Uztailak 6-7.** Aurre-rakada handia eguraldi aproposarekin, 800 metro soka.

**Uztailak 15.** Egoera txarretan, 100 metro soka jarri zituzten. 15 orduko lana egin eta gero, behera itzuli behar.

**Uztailak 20.** Denda jarri zuten 2. kanpamenduan, 6.700 metrotan.

**Uztailak 27.** Gailurre-rako saialdiei ekiteko ordua zenean, eguraldi txarrekin, ordu erdian etsi egin behar.

**Uztailak 28.** Eguraldi kaskarra, eta arrisku oneak 1. kanpamenduaren inguruan.

**Uztailak 29.** Berriro ere 2. kanpamendura.

**Uztailak 30.** 7.200 metrotan, 3. kanpamendua jartzea lortu zuten.

**Uztailak 31.** Gorago oraindik, 7.900 metrotan 4. kanpamendua.

**Abuztuak 1.** Bezperako gauean irtenda, Alberto eta Felix Iñurrategi anaien gailurrerako bidea hartu zuten. Elurra bigunegi zegoen, aldiz, eta ordu batzuetako lanaren ondoren, 8.100 metrotan bueltatzeko garaia zela pentsatu zuten.

**Abuztuak 14.** Gauzak bildu ostean, gameluekin buelta.

**Abuztuak 22.** Jeep-etan segitu zuen itzulerako bidea. Lehen zibilizazio zeinuenekin, etxera deitzeko aukera, bizirik zeudela, ondo zeudela eta etxera zetozela...

**Irailak 3.**  
Aretxabaleta!



Mendizaleen familiakoek ez zituzten hiru hilabete goxoak pasa.

## Rosario Iriarte, Iñurrategitarren ama: Santa Ritari errezetan

Maria Agirre

**Espedizioa irtetera zihuan. Lagunek zorte ona eskeini zieten. Neskalgunek musu bat. Aitak eskua eman zien. Baina nola esan zien amek agur euren semeei? Eta nola bizi izan dute semeak espedizioan zeuden bitarteko garaia? Honi buruz eta beste gauza batzuei buruz galdetu diogu Iñurrategitarren amari, Rosario Iriarteri.**

— Nola agurtzen dituzu semeak? Zer esaten diezu?

— Ezer ere ez. Ez ditut agurtzen. Eurek irten aurretik, alde egiten dut etxetik. Momentu hori ez zait gustatzen eta etxetik kanpo egoteko aitzakiaren bat bilatzen dut.

— Aurten partaide gehiago zirenez, beste ama batzuei ere tokatu zaie sufritzea.

— Bai, egia da. Gainera, denbora luzez albiste barik egon garenez, bi hilabete baino gehiago nerbioz egon gara guztiok, bai neu eta espediziozko beste partaideen gurasoak ere bai. Telebistaz ere K2 mendiari buruzko erreportai bat ikusi genuen eta ez zigun inpresio onik egin.

— Semeek zorte ona izan dezaten, sainduren bati edo errezatzen diezu?

— Bai, Santa Ritari. Normalean ere errezatzen dut, baina halako egoeratan gehiago.

— Semeak kanpoan egon diren bitartean, telefono dei asko erantzun behar izan duzu?

— Aurten ez hainbeste. Iazkoa gehiegizkoa izan zen, telefonoak ez zuen deskantsurik hartu. Everesteko gailurra lortu zutela jakin zenean izugarria izan zen, egun guztia telefono deiei eran-

tzuten pasa genuen. Aurten-goia lasaigoa izan da.

— Zeuri ere tokatu zaizu irratitik eta berba egin behar izatea.

— Bai, baina ez zait bat ere gustatzen. Zer esango dut nik ba?

— Semeei buruzko berriak egunkarietan irakurtzea, edo telebistaz ikustea arraro egingo zaizu ba?

— Hasieran bai, orain gutxiago. Hortan ere ohituaz goaz.

— Bazkari berezirik prepartzea gustatzen al zaizu, semeak bueltan direnerako?

— Ez, ez. Gainera ez didate kapritxo berezirik eskatzen.

— Oparirik ekarri dizute semeek?

— Bai, oraingoan kafea hartzeko katilu dotore batzuk.

— Berriz ere ba ei doaz. Graziarik egiten dizu horrek?

— Larregi ez. Baina zer egingo diegu ba?





Gaztetxoek artean gero eta gehiago erabiltzen da euskara, baina kirol munduan ez horrenbeste.

# Kirol monitoreak euskaratzeko programa hasi da bailaran

Deba Garaiko udalen artean Kirol entrenatzaile eta monitoreak euskaraz trebatzeko plangintza bat jarriko da martxan aurki. Herri desberdinetako euskara zerbitzuen kezka komun batetik sortu da ideia hau.

Euskara zerbitzuen ustez, hezkuntzan aurrerapausu handiak egin ditu euskarak, eta aldi berean gazteen ezaguera eta erabilera gero eta handiagoa da. Hala ere, paradoxa bat gertatzen da, gazteak gehien okupatzen dituen jardueretako batean, kirolean, erdara da nagusi.

Hizkuntz hutsune honen jatorrian, kirolariek entrenatzen eta haiei laguntzen ibiltzen diren monitoreen

gaitasun eza izaten da askotan arrazoia, ez bakarrik erdaldunen kasuan, baita euskaldunak izanik ere, kirolaren terminologia menderatzen ez duten entrenatzaile euskaldunen kasuan.

Iaz Arrasaten egindako inkesta batean ikusi zenez, kontsultatuko 25 monitortarik 14 ziren euskaldunak, baina 5ek bakarri egiten zuten lan euskaraz, beste hiruk apur bat egiten zuten, edo kirolari gazte jakin batzuekin bakarrik. Dena den, Bailarako gainerako herrietan egoera hobea da.

Egoera hau zuzentzeko, udazkenean hasiko da plan berria, eta bi alde nagusi izango ditu urtea amaitu bai-

no lehenago. Lehenengo eta behin, kirol monitore eta entrenatzaileak trebatzeko bi ikastaro egongo dira, bata boleibol monitoreentzat eta bestea, erabakitzeke dago oraindik ea pelotakoa edo txirrindularitzakoa izango den.

Ikastaroaz gain, beka bat eskainiko da Deba Garaian, futboleko taktika eta arauetarako buruzko erdarazko libururen bat euskarara itzultzeko. Plangintza osoak 700.000 PTako aurrekontua du aurtentzen, eta horietarik heren bat jarriko du Arrasatek. Aurtengo udazkeneko programaren emaitzak ikusita, seguruki datorren urtean ere segituko du plangintzak.

**LABURRAK**

## UDAREN aurka, kale berriro

Mondrak berriro galdu zuen asteazkenean Aretxabaletako UDAREN aurka, Aretxabaletako futbol trofeoan. 1-1 emaitzaz amaitu zen partidua, Mondrak penalti batean kale egin eta gero, eta penaltien txanda, talde bakoitzak 10 penalti bota behar izan zituen: azkeneangoan kanpora bota zuen Mondrako jokalaria batek. Beraz, aurreko astean Arrasateko Kajoi trofeoan bezala, berriro nagusitu zaio regionaleko UDA 3. mailako Mondrari. Ligari dagokionez, Elgoibar indartsuaren aurka 0-0 eginda hasi zuen denboraldia Mondrak Atxabalpen: partidu aspergarri samarra eta emaitza zuzena. Hurrengo, regionaletik igo berri den Balmasedaren aurka, larunbatean arratsaldeko 5etan, Sodupeko futbol zelaian, Balmasedakoa obregatik itxita dagoenez.

## Rugby denboraldia

Arrasate Rugby Taldeak hasi ditu jada entrenamenduak, eta jokatzen ere larunbat honetan hasiko dira, Garagartzan 5etan Eibarren aurka. Entrenamenduetara rugbyrako interesa duen guztiei dei egiten die taldeak, egunero entrenamenduetara

**GORKA**  
 ILEAPAINDEGIA  
**SOLARIUM**  
 Ferrerías, 35 ARRASATE  
 Tfnoa: 77 13 78

**ARTOLA**  
 KOMERTZIALA  
 Zerkaosteta, 3  
 Tfnoa: 79 14 40  
 ARRASATE

**PUB HAIZEA**  
  
 arrasate



# RKUZ Sukaldeak

Sukalde integratuak



Banatzaile ofiziala

Mitarte, 3  
Tfno, fax: 77 04 55  
ARETXABALETA





# Elikagaien kontserbazioa eta teknologia berriak (II)

**Elikadurarako** ohituretan eragina izan duten faktoreak, honako hauek dira, besteak beste:

1.- Urbanizaziorako sistema berrietarako joera. Laneko lekuak etxebizitzetatik gero eta urrutiago daude eta hori dela eta, gero eta jatordu gehiago egiten da etxetik kanpo, edo etxean egiten diren jatorduak azkar prestatzekoak eta presakakoak izaten dira.

2.- Emakumea talde bezala lan munduan sartzeak, lanaldi intentsiboak nagusitzeak, indartu egiten dute lehen aipatu dugun jateko-ohituraren aldaketa hori.

3.- Herrialde askotan gertatu den bizitza-mailaren igoerak, aisialdi eta kirolerako ihardurak gehitzea eragin du. Horrek ere aldatu egiten ditu jatorduak eta janari motak.

4.- Elikadura eta osasunaren arteko harremanaz jendeak gero eta informazio eta ardura handiagoa hartzen du; horren eraginez populazioak orokorrean produktu berriak



eskatzten ditu, hainbat osagai kontrolaturik hartzea ekarriko duten janariak, gaisotasun batzuekin neurri handiago edo txikiagoan erlazionaturik: gantzak, kolesterola, azukreak, kafeina, gatza, fibra, alkohola e.a.

Guzti horren eraginez, ge-

hitu egin da gizarteko multzo jakinei, umeei, adineko pertsonari, zuzendutako janarien produkzioari buruzko ikerketa, eta baita dieta bereziatarako janarien produkzioa ere.

5.- Gosearen arazoa ere, bereziki superpopulatutako eskualdeek bizi dutena,

erronka teknologiko garrantzitsua da, beti ere kanpotik etorritako berehalako laguntza koitunturala baino areago joango den irtenbidearen bila.

**M. TERESA ALONSO**  
**EROSKIKO KONTSUMO**  
**MONITOREA**

 **CIM**  
**HIZKUNTZAK-IDIOMAS**

- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

**93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA**  
**IREKITA DAGO !**


Hurbil zaitetz gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4  
OÑATI: Olakua, 14

Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54  
Tfnoa: 71 60 00

**Leniz**  **Motor**

- LORATEGI
- BARATZA
- ZELAI
- BASO GARBIKETA



**TRESNERIAKI**

Gipuzkoa Etorbidea, 9  
ARRASATE  
Tfnoa: 79 11 78



- Irakasle natiboak, profesionalak, titulu eta esperientziadunak
- Maila guztiak
- Ordutegia zure beharren arabera jarriko da



- Enpresentzako zerbitzuak: itzulpenak, interpretariak, e.a.
- Kalitatezko eskolak

## IDIOMASTER

**HIZKUNTZEKIN ZERIKUSIRIK DUENAK  
GUREKIN DU ZERIKUSIA**

NON GAUDEN?

Ferrerias, 44 • Tfnoa: 79 07 84 • ARRASATE

## “Gazteak martxan” IV. Argazki Lehiaketa

### ■ Partehartzaileak

Bi kategoria

- A) Deba Garaikoa 14-20 urte bitarteko gazteak.
- B) 21-35 urte bitarteko edozein.

### ■ Sariak

- A) Kategoria: 1. 20.000 PTA  
2. 10.000 PTA

- B) Kategoria: 1. 50.000 PTA  
2. 35.000 PTA  
3. 25.000 PTA  
4. 20.000 PTA (Aurreko sarituen artean Arrasatekorik egon ezean, 4. saria herri mailako lanik onenak jasoko luke).



### ■ Aurkezteko epea

Lanak aurkezteko epea urriaren 29an amaituko da







ondragoeko lau-bost bat kua-  
drila agertzen dira erretratu  
honetan. Bertan agertzen di-  
renen esanetan, 1950-51n ate-  
ratakoa izan behar du, Du-  
rakogainen. Mendi horretan  
dagoen ermita San Adrixane-  
na denez, izen horrekin ere  
ezagutzen da mendia. Atze-  
kaldean ikusten dena Udalaiz  
da, eta Mondrauetik oinez  
joaten ziren hara.

Orduan artean ez zegoen  
Besaidetik, eta Juventud De-  
portivaren barruan zeuden  
mendizaleak ere antolatuta.  
Besaide geroago sortu zuten,  
mendizaletasunari protago-  
nismo berezia eman nahirik.

Goian, ezkerretik eskuma-  
ra, Esteban Etxebarria "Ba-


pex" (+), Jesus Barrutia, I-  
naxio Urionabarrenetxea  
(+), Jose Mari Beitia, Mo-  
desto Berezibar, Imanol Zu-  
bizarreta "Tampoco", Pa-  
txi Garai "Galan" (+), Ti-  
moteo Eriz (+), Luis Are-  
txaga, Ino Arregi (+), Jesus  
Mondragon (+), Luis Ben-  
goa, Juan Azkoaga eta Je-  
sus Balanzategi "Ezkerra"  
(+). Behean makurtuta, ezke-  
retik hasita, Josu Mujika (+),  
Genaro Serrano, Joxe Zu-  
lueta, Azkargorta "Txama-  
ko" (+), Felix Garai, Anto-  
nio Berezibar, Luis Murgu-  
zur, Imanol Bolinaga, Jesus  
Berezibar, Paulo Etxeberria  
(+), Pablo Agirre (+) eta  
Franziska Etxeberria (+).

Garagartza auzoa  
Tfnoa: 79 76 58  
ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Ondo pasatu oporrak,  
gu ere oporrtan gaude  
abuztuan





# DALE FUERTE


## EUSKARA IKASTAROAK 1993-94

Aurkezten du:

- 1.- Aukera desberdinak:
  - Alfabetatzen
  - Euskalduntzen
- 2.- Kolektibo ezberdinei zuzenduak
- 3.- Helburu ezberdinei begira:
  - Neurriira egindako ikastaroak
  - EGA
  - 1. HE, 2. HE, 3. HE (Administrazioa)
  - 1. HE, 2. HE (Hezkuntza)
- 4.- 2, 3, 4 eta 5 ordutako erritmoetan

5.- Beste datU batzuk:

- Matrikula epea: **IRAILAren 1etik 17ra**
- Ikasturtearen hasiera: **IRAILAren 22an**
- Beka sistema daukagu
- Bulego ordutegia: Goizetan: 10.00 - 13.00  
Arratsaldetan: 15.00 - 19.00



**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**  
Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tfnoak: 79 70 77 - 79 77 88  
ARRASATE



**ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎**

**Etxebizitzak**

- **Neskek behar dira Bilbon pisua osatzeko.** Tfnoa: (94) 416 01 00. Jaione B.
- **Pisua topatzeko pertsona behar da edo etxebizitza baten gela libre bat.** Dei egin goizeko 9etatik 2etara 79 16 57 tfnora. Natxo.
- **Neska bat behar da Bilbon pisua osatzeko.** Tfnoa: (94) 4 43 55 83.

• **Pisu bat salgai Calaorran.** 75 m<sup>2</sup>akoa. Erdialdekoa, eguzkitsua, ondo jantzia. Ganbara, trasteleku eta goteleduna. 4.550.000. Tfnoa: 79 64 50.

• **Bi ohedun logela eskaintzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

• **Torremolinosen (Malagan) apartamendu-estudioa salgai.** Jantzia, erdialdean, moderno, 2. pisua; igerilekua eta inguruetan saloi handiak ere baditu. Tfnoa: 79 64 50.

• **Iruñean pisua behar baduzu,** guk hiru lagunentzako lekua dugu. Tfnoa: 79 51 04. Leire.

**Lana**

• **Emakume edo neska euskalduna** eta esperientziaduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 89 96. Maria Eugenia.

• **Emakume esperientziadunak etxeko lanak** egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 60 18. Mari Karmen.

• **Klase partikularrak ematen dira:** OHO eta REM. Italiara ikasteko aukera ere oiraintxe daukazu. Tfnoa: 79 69 80.

• **Buzoneo edo banaketak egiteko** norbait behar baduzu deitu. Anuska edo Eneritzi. Tfnoak: 79 68 75 edo 79 39 49.

• **Andre euskaldun bat** etxeko lana egin, umeak, pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

• **Ume bat zaintzeko,** esperientziadun neska prest. Arantxa. Tfnoa: 77 13 66.

**Salerosketak**

• **Honda Px 50cc. 2 cv** salgai. Lau urte. Ondo zainduta. 70.000 PTA. Tfnoa: 79 97 84. Patxi

• **Canon EOS-650 argazki kamara saltzen dut.** 35/70 Canon objektiboa. Nikolas Uribarren. Tfnoa: 79 23 60. 20'00etatik 22'00etara.

• **Karabana bat salgai.** la Berria. Tfnoa: 77 04 98. Alberto. • **Umeen mountain-bike bizikleta salgai.** GAC 4x4 markakoa. Estreinatuta barik dago. Amortiguadoreak ditu eta kanbio gabeakoa da. Prezioa: 8.000 PTA. Tfnoa: 79 27 88.

• **Abereak gustoko badituzu, kuixaren bat interesa dakizuke.** Bedarra eta ogia jaten dute eta ura ere behar dute. 250 PTAtan bakoitza. Tfnoa: 76 32 18 (astelehen, ostegun eta larunbatetan gaueko 7etatik 9etara). Itziar.

• **Alfa-Romeo 33-1.3 salgai.** SS-6049-AC. Tfnoa: 79 87 83.

• **Bitrina erakuslea salgai.** Biragarria eta igeltsu italiar modeloko argiduna. Tfnoa: 79 64 50.

• **FAGOR markako 100 litrotako termoa salgai.** Egoera eta prezio onean. Tfnoa: 79 07 73.

• **Bi saltzailerentzako moduko pisua salgai.** Ticket-ak eta txanporentzako kaxoia ditu. MINERVA markakoa. Tfnoa: 79 64 50.

• **SPECTRUM markako ordenagailua salgai.** 16 jokurekin. 15.000 PTA.. Tfnoa: 79 93 91. Joseba.

**Denetarik**

• **Martitzen 13an** goizeko 10etan Zentro Asistentzial eta Anbulategi tartean dagoen telefonoaren Kabinan Kartera bat utzi nuen ahaztuta. Norbaitek aurkitu badu, deitu 79 17 88 Tfnoa. Karmen.

• **Datorren ikasturtean Bilbora egunero** arratsaldez joateko interesatuek dei egin 77 08 32 tfnora.

• **Sn Judas Tadeori bederatziruena,** Jesusen bihotz santua, izan bedi maitatua, aintzatu eta babestua mundu guztian, orain eta beti. Jesusen bihotza, otoitz gure alde. San Judas, etsita daudenei laguntzen diezuna, otoitz gure alde. Egizu otoitz hau bederatziru egunez eta zortzigarrenean argitaratzea agindu. Eragin handikoa da; izan ezazu fede, eta mirariak ikusiko dituzu U. Z.

• **Kaixo Kris, Estibi, Kris eta Felix.** Zorionak, Sharryn partez. Sentitzen dut lehenago zoriondu ez izana. Zuekin pentsatzen dut eta onena opa dizuet.

• **Datorren ikasturtean Gazteizera egunero goizez joateko** interesatuek dei egin 79 58 66 Tfnoa.

**Aste Gazte**

**Lanpostuak**

• Orientazio ikastaroa Leizargarateko aterpean. Irailak 25-26. Izenemateak: Ir. 20, 21, eta 22.

**Bekak**

• Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira-Museoko Arkeologia Saillean Erroldapena eta Irudizko Argipideak egiteko bekak. Historian litzentziatuei zuzenduak. Epea: Irailak 15.

• Epailaritza eta fiskal

karrera egiteko oposaketak prestatzeko dirulaguntzak. Urtebeteko iraupena, 576.000 PTAko dirulaguntza. Epea: Irailak 30.

**Ikastaroak:**

• Aisialdi Begirale nahiz Zuzendari ikastaroak egiteko interesa duzuenok, gogoan izan matrikulak iraillean zehar egin behar direla.

• Hezkide Eskolak Susperketa soziokulturala eta Heziketa Berezia ikastaroak

antolatatu ditu 93/94 ikasturterako. Urriaren 8rarte.

**Lehiaketak:**

• Arrasaten abenduan burutuko den «Adibidez» Mostra iragartzeko Kartel Lehiaketa. HIES Ekimenak antolatua. Teknika eta formato libreak.

• "Gazteak Martxan" Arrasateko IV. Argazki lehiaketa. 2 maila: a) Deba Garaiko 14-20 urte bitarteko gazteak, b) 21-35 edozein. Zuri-beltz nahiz koloretan. Sari garrantzitsuak. Epea: Urriak 29.

**6 eta hamairu urte bitarteko 1.600 umeen artean egin-dako ikerketa baten arabera, estatuko umeek onentzat jotzen dituzten baloreak «Solidaritatea», «Laguntasuna» eta «Kooperazioa» dira.**




**Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65**



## ZER NAHIAGO?

## Jon Telleria

## Telleria auto-eskolakoa



- **Zer iritzu duzu okupei buruz?** Kriston jaleoa montatu zutela, baina ez da erraza irtenbidea bilatzea ere.
- **Garestia da gaur egunean gidatzeko karneta ateratzea?** Bai, hala da, eta gero eta garestiagoa da gainera.
- **Zer kolore ikusi diozu gaurko egunari?** Nahiko iluna, lainotsu dago eta.
- **Ezer ez daukanari zer esango zenioke?** Ez da gomendio erraza. Zerbait edukitzen ahalegintzeko.
- **Zer behar du gidari on batek?** Burua, buruarekin gidatzea.
- **Ezinaren aurkako erremediorik?** Nola hala, nahi duena lortzea.
- **Eguneroko estresaren kontra, zer?** Opor egun batzuk.
- **Lo ondo egiteko errezetarik?** Nekatuta oheratzea.
- **Egon zara noizbait musika kontzertu batean?** Bai, azkena David Bowie-ren kontzertuan egon nintzen.
- **Abiadura gustatzen zaizu?** Batzuetan bai.
- **Diesela ala gasolina?** Diesela.
- **Argazkilari ona zara?** Nahiko ondo konpontzen naiz.
- **Erljihoan sinisten duzu?** Bada, ez dakit zer esan.
- **Gustoko ez duzun kolorerik?** Denak ditut gustoko.
- **Lehengo dantzak ala modernoak?** Biak gustatzen zaizkit.
- **Baduzu EGA tituloa?** Ez, ezta ateratzeko asmorik ere.
- **Musika tresna bat?** Klarineta.
- **Badakizu zure seigarren abizena?** Ez, beno bai, Arregi.

## BERTSOAK

## Oporrak

1  
Dalako pasa diran oporren kontura, halabeharrez nator berriro kantura; nonbaiten emana du jendeak denbora; hilabete osoa etxetik kanpora guztiak ote dira itzuli gustora?

2  
Urteroko sailari tinko nai eustia errez ez izan berriz, hori da bestia etxera ez bai dator bear dan guztia kanpoan zer berri dan komeni ikustia aurrera zer bideri jarraitu ikastia.

JOXE MANUEL ARRIOLA

# LORAMENDI BIROLAK

## BEHERAPENETAN GAUDE



- PRAKAK
- ZAPATILAK



# %30

- KAMISETAK
- TXANDALAK





# Cesar Cimiano "Txifi" Margolari modernoa

Irailaren 10etik 26rarte, artista arrasatear honek bere pinturak erakutsiko ditu Iturriotz kaleko Harresi Aretoa. Ilustrazioak, kartelak, teknika ezberdinak erabiliz egindako kuadroak... Arte Ederretako karrera egina du, baina esperientziak eta ikaskideen estiloa ezagutuz gehiago ikasten dela dio.



**- Zertan datza «ilustrazioa» ?**

Beno, ilustrazio bat, azkenfinean, irudi plasmatu bat da. Niri ez zait gustatzen ilustratzailea naizela esatea: egiten dudana gauza bakarra ideia edo irudi bat nik ulertzen dudana moduan margotzea da. Margolari bat besterik ez naiz.

**- Zer margotzen duzu normalean ?**

Nahiko tetrikoa naizela esaten didate. Azken boladan, heriotzarekin eta gerrarekin erlazionatutako margoak egin ditut, Nihilismoaren filosofiak asko erakartzen nau eta. Baina gauza alaiagoak ere margotu izan ditut, Sevillanek adibidez.

**- Harresi aretoko lanak, beraz, gai horretakoak izango dira?**

Gai nagusia «Gizona eta Bizitza» izango da. Bizitza

eta heriotzaren arteko jokoa, bi elementuz islatu nahi izan dut; xakea eta zaldia. Bi elementu hauek konbinatuz hainbat margo egin ditut.

**- Arte Ederretako karrerak eraginik izan du zure artean?**

Ez, bat ere ez. Egia da bertan gauza asko ikasi nituela baina teoria hutsa izan zen. Irakasleek oso

*“Hirietan bakarrik ez, herrietan ere gero eta jende gehiago interesatzen da arte modernoaz”*

gauza konkretuak erakusten zizkiguten. Ikaskideen margotzeko era eta estiloa ezagutzeak, edozein ikasgaik baino eragin handiagoa izan du nigan. Nire estiloa guttiz pertsonala da... eta gehienentzat ulertezina! Baina nire artea da eta nik ulertzen dut. Bestalde, gero eta jende gehiago interesatzen da arte modernoaz. Hori hirietan nabaritzen da batez ere, baina herrietarantz ere zabalduz doala uste dut.

**- Zu lanek badute estilo konkreturik?**

Uf! Zaila da galdera horri erantzutea. Ez dut estilo konkreturik. «Pop-Art» artea eta «Arte-Pobre» a nahastu ditut azken bolada honetan, baina sekula ez naiz estilo bakar batean zentratzen. Teknika-ekin berdin egiten dut; hasieran oleoak besterik ez nituen egiten, gero argizari-zko pinturetara pasatu nintzen eta orain, berriz, bi teknikak nahasten ditut.

**- Bizi daiteke honetatik ?**

Adibide argi bat; ni langabezian nago. Tira, horixe bizi daitekeela, baina oso ona izan behar duzu horretarako. Nork daki, agian noizbait beste gauza bat erantzungo dizut!

**LABURRAK**  
**Euskararen hitzarmenarako anagrama aukeratzeko lehiaketa zabalik**

Aurretik ere hontaz idatzi dugun arren, Arrasaten sinatuta dagoen euskararen erabilpena sustatzeko hitzarmenarentzat anagrama aukeratzeko lehiaketan aurkezteko bukatzeaz dago epea. Hitzarmen hau sinatutako entitateek identifikagarri bat behar dutela eta, berau lehiaketa honen bidez lortzea pentsatu dute, aurretik, hitzarmenaren agiri idatzietan anagrama irabazlea agertuko delarik. Lehiaketa honetan Arrasaten bizi edo erroldaturik dagoen edozein pertsonak hartu dezake parte eta nahi beste anagrama aurkeztu ahal izango ditu. Anagramak derrigorrez 'EUSKARAREN HITZARME-NA' testua eraman behar du. Lanak entregatzeko epea, irailaren 24a izango da eta Udaletxeko Euskara Zerbitzura bidali behar dira. Irabazleak, 50.000 PTako saria eramango du baina epaimahiak hala erabakiz gero, lehiaketa hutsik gera daiteke.

Oraindik ere parte hartu nahi duzuenok, arin ibili beharko duzue arkatzen eta margoekin.



**JOSU**  
**TXOKOLATEGIA**  
**KAFETEGIA**

Elkano, 25 ARRASATE  
Tfnoa: 77 03 66

93 - 94 IKASTURTEA

- Maila guztiak
- Umeak, gazteak, helduak, enpresak
- Goizez eta arratsaldean
- Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñati

**ZATOZ GURE BULEGOETARA !**

ARRASATE: Araba Etorb., 4  
Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54  
9etatik 1etara — 4etatik 8etara

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

OÑATI: Olakua, 14  
Tfnoa: 71 60 00  
4etatik 8etara





Jon Markaide Arrasaten, San Viatorreko ikasle ohien bilkura batean.

## Jon Markaide, ia izarretaraino iritsi den arrasatearra

Estatubatuarrak Martera espaziountzi bat bidaltzeko ahaleginean kale egin duten urte honetan bertan, ikerlari euskaldun batek egin du astronomiaren arloko urteko ekarpen garrantzitsuenetarikoa. Jon Markaide izan da lorpen horren erantzulea, Elgetan jaio eta Arrasaten hazi zen astrofisikoa.

1993-J izeneko supernovaren tamainua zehaztu zuen Markaidek bere lantalde zientifikoarekin batera, aurtengo maiatzean. Eztanda egin duten izarrek dira supernovak, eta Markaideren neurketa, halako izar baten tamainua zehazten duen lehenbizikoa da. Jon Markaide Valenciako unibertsitateko irakaslea da, bai-

na orain Boston-era doa urtebeterako han ikertzerako. Markaidek kurrikulua luzea dauka nazioarteko astrofisikaren alorrean: Alemania, Estatu Batuak, Erresuma Batua... lan eta irakaskuntza esperientzia aberatsa dauka 43 urteko euskaldun honek. 1983tik 85era NASArako lan egin zuela nabarmendu liteke, edo

astrofisikaren alorreko 70 artikulua idatzi izan dituela.

### BASERRIKO SEMEA

Puntako zientzilari honen karrera bikainean, ordea, has-tapen umilak aurkitzen ditugu. Elgetako Olei baserrian sortu zen mundura Juan Mari (Jon) Markaide. Gurasoak Elgetako Felisa Osoro eta Arrasateko Anastasio Markaide (Uribarriko Olaran baserrikoa) zituen, eta jaioberri zela jaitsi ziren Arrasatera bizi izatera.

Jonek ez zuen eskolarik ezagutu 6 urte egin arte. Adin horrekin, San Viatorren sarre-ra eskatu zioten gurasoek, eta ez zioten utzi. Ondorioz, maisu partikularra jarri zioten lau hilabetez gurasoek, eta hurrengo kurtsuan lortu zuen eskolaratzea, bigarren mailan zuzenean, lehenengoa egiteke. Eskola Politeknikoan segitu zituen ikasketak eta peritajea egin bitartean Fagor Electronican lan egin zuen laborategiko analista bezala. Preu Gasteizen egin ondoren, unibertsitate ikasketak egin zituen Zaragozan, eta 1975ean lizentziatu zen. Ondoren, nazioarteko ikasketa eta lanei ekin zien. Emazte nafarra dauka Markaidek, eta seme bi, Inko eta Iker.



Parques  
y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Larazaintzako mantenimendua ora har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



• ESAERA ZAHARRA •

*“Aditzaile onari  
bitz gutxi”*

• JEROGLIFIKOA •



Hainbat arrakastaren giltza

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10						11
12				13	14	
15				16		
17						
18						19

J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Mojak bizi diren etxea. 8. Etorbidea, Aretxabaleta aldera. 9. Tulioa. 10. Azpiko. 11. Zamorako ibilgailuetan. 12. Ukitu aditzaren infinitiboa. 13. Galant. 15. Denuntzia. 17. Kapitulu. 18. (Ald.) Bike, zahato barruan done.

**Bertikalak** 1. Zamarrote. 2. Ekilibratu. 3. Palu. 4. Estatuko buletin ofiziala. 5. Sodioa. 6. (Ald.) Zuzendu. 7. Geun. 13. Euskal Kulturaren Batzordea. 14. Ezer. 16. Garau.

• HOROSKOPOA •

**Aries** Ez izan horren zuhurra; laguneren artean fama txarra izan dezakezu.

**Taurus** Ahaztu zaitetz udan ezagutu zenuen lagunaz, berak ere ahaztu baitzaitu.

**Gemini** Lodi etorri zara oporretatik, kirol pixka bat egin beharko duzu argaltzeko.

**Cancer** Lanean hasi eta segituan stress-atua egotea ez da seinale ona. Lasaitu zaitetz!

**Leo** Hutsean zaude. Berriz ekin beharko diozu dirua aurreratzeari.

**Virgo** Ez da garai egokia gida baimena ateratzeko.

**Libra** Izerdi usaia daukazu. Noizean behin dutzatzeak ez dizu kalterik egingo.

**Scorpio** Badakit ongi abesten duzula, baina ez egin kompetentziarik Julio Igle-siasi.

**Sagitarius** Telebista larregi ikusten duzu azkenaldian. Horrek tenteldu egin zaitzake.

**Capricorn** Zure gorputz polita luzitu nahi izan ezker, sufritzen ere ikasi beharko duzu.

**Aquarius** Lehenengo aukerari uko egiten badiozu, ez duzu bigarren aukerarik izango.


**Piscis** Orain artean zori ona izan duzu, baina ez dizu betiko iraungo.

**‘CARFRA’ SUKALDE  
ALTZARIAK  
5 URTETAKO  
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN  
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU  
ENPOTRATUAK  
ISPILU-ATE  
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA  
KANPOKO ATEAK**



Vanesa



**ERAKUSKETA**  
Legarre pabiloia z/g  
Gipuzkoa Etorbidea  
Tfnoa: 79 01 92  
**ARRASATE**

**DeLonghi**  
marka  
italiarraren  
banatzaile  
ofiziala



• ITXARO ARTOLAREN GOMENDIOA •



Gatzagako jaietako programatik erakargarri egin zaion erakusketa bat gomendatu digu. "Sorginak" emakume taldeak egindako lanen erakusketa da, kaxa eta kutxa zaharrak berritu eta berreskuratzen eta margotuz egin dituzten lanak. Jai hauetan zehar, 12etatik 2etara eta 7etatik 9etara egongo da zabalik erakusketa eta "norberak praktikara eramateko eskulan interesgarria" iruditzen zaio, ideiak hartzeko. Bestelakoan ere, Gatzagan antolatu dituzten jaiak oso inpresio ona egin diote, originalak, goitik behera euskaldunak eta "esportaziorik gabeak" iruditu zaizkio.

• KOMIKIA •



• PROGRAMAZIOA •



Datorren astean, informazioaren ondoren ATBn arrakastatsu izan diren programak, oraindik ikusi ez badituzu.

**12 Astelehena**  
8.8.30, 9 Berriak  
9.30 Mondra-Sport: Esti Loiti eta Iñaki Barrenaren eskutik.

**13 Asteartea**  
8.8.30, 9 Berriak  
9.30 HARATUSTEETAKO PROGRAMA.

**14 Asteazkena**  
8.8.30, 9 Berriak  
9.30 PLAY-BACK JAIALDIA

**15 Osteguna**  
8.8.30, 9 Berriak  
9.30 ATZERATUAK, NORTZUK?

**16 Ostirala**  
8.8.30, 9 Berriak  
9.30 SORGIN PUNKY

• SOLUZIOAK •

Jarduna.  
**JEROGILIFIKOA**  
Amarum, 13. Ekb, 14. Deus, 16. Ale.  
Makila, 4. Ebo, 5. Na, 6. Aretzu, 7.  
**Bertikalak** 1. Kapusat, 2. Orekatu, 3. 18. In.  
13. Eder, 15. Salaketa, 17. Atalburu.  
ba, 9. Tm, 10. Peko, 11. Za, 12. UKI.  
**Horizontalak** 1. Komentua, 8. Ara-  
**GURUTZEGRAMA**

LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK  
HIZKETA ARAZOAK  
AHOTS ARAZOAK  
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zorgin Kantoi, 3 - 1º Esk.  
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**IKASTAROAK**  
Pelukeria  
Estetika  
F.P. 1 Titulu Ofiziala  
General Loma 4-3. GASTEIZ  
Tfnoa: (945) 23 33 99


**IKASTAROAK**  
Osasun laguntzailea  
Psikiatria laguntzailea  
Puerikultura  
%90ak azterketak gainditu  
General Loma 4-3. GASTEIZ  
Tfnoa: (945) 23 33 99



# Clio

**BERRIA**

# SYMBOL



**1.150.000 PTA\***

Clio Symbol berria bere motoreak bezain zarata ona duen zerbaitekin dator:

- Irrati-kaseta, ateratzeko aurrekalde eta segurtasun kodeduna.
- Bost martxa.
- Bi moto4izazio: 60 cv. gasolina eta 65 cv. diesela.
- Atzeko kristala garbitzekoa.
- Kristal tintatuak.
- Dieseletan direkzio lagundua aukeratu.

**CLIO DUZU DENA, SINBOLORIK ONENA**

